



Egilearen eskutik

“Berriketan” metodoa

*Gabriel Aresti Euskaltegiko
Didaktika Batzordea*

“Berriketan” metodoa Bilboko Gabriel Aresti Euskaltegiak euskalduntze-rako sortutako metodoa da. Orainarte beste batzuk sortu badira ere, hau gaur egungo ikaslegoari egokitzen zaiolakoan eta euskalduntzean, taldeka, diharduen edozein irakaslek erraz erabiltzekoa delakoan eginik dago. Bestalde, ikasleak bere liburua dauka maila bakoitzean. Era honetan, bakarkako lanari, klaseko orduz gain, ekin diezaion aukera ematen zaio.

Sorrera

“Berriketan” metodoaren hastapenaz hitz egitea erraza ez bada ere, aha-leginduko gara zenbait argigarri ematen.

Larogeigarren hamarkadaren hasieran, gure Euskaltegia “Gaueskola” izatetik egun osoko eskola izatera pasatu zen. Era berean, euskalduntze-ko mailaketa eginik zegoen eta maila bakoitzean landu beharreko hizkuntz formen banaketa. Beraz, marko fisikoa eginik zegoen, zenbat maila ziren eta zein helburu gramatikal lortu behar zen maila bakoitzean. Dena den, gure kezkarik nagusienak kolokan jarraitzen zuen. Hau da, bagenekien ikasleak zer lortu behar zuen, baina ez zer erabili eta nola egin horra hel zedin. Ordurarte euskáraz argitaratutako materiala biltzeari ekin genion, besteak beste, erabilera posibleak aztertu eta orduko euskalduntzeko gogoak ase nahian. Hala ere, konturatu ginen ez zela nahikoa lan hori. Material berbera maila desberdinetan errepikatu ez ezik, irakasle bakoitzak inolako eredu ez prestakuntzarik ez esperientziarik barik iharduten zuen, ondorioak begien bistakoak izanik. Guzti hau aztertu eta erantzun serio bat eman nahian, larogeita lauean, euskal-

tegian Didaktika Taldea eratzea erabaki zen, helburua euskaltegi barruan koherentzia didaktiko bat ziurtatzea izaki:

- Materiala ez errepikatzea maila desberdinetan.
- Irakasleon prestakuntza minimoa.
- Ikastaldean jarraipena.
- Euskaltegi barruko koordinazioa aseguratzea, azken finean.

Metodoaren nondik-norakoak

Programagintzan hasi aurretik, irizpide metodologikoak hautatzea zertorren. Euskara hizkuntza funtzionala izaki, komunikarazteari lehentasuna emango zion metodo bat, hain zuzen. Dena den, komunikatibo soila ez. Kontutan izanda ikasleak helduak direla, haietariko askok hobeto ikasten dute oinarri gramatikalak azalduz, beste batzuek entzunez edo ikusiz egiten duten bitartean. Hortaz, metodologia eklektikoa aukeratu zen. Ikasleak, zenbat eta bitarteko gehiago eskaini, hobeto eta errazago ikasiko duelakoan. Nozio-funtzionala, alegia. Ikaslea, nozioak ikasi ahala, funtzio komunikatibo batzuk betetzen joango da. Era berean, bigarren hizkuntza honetan gaitasun-maila garatzen doala, euskal hiztunekin hartuemanetan, kultura eta jakintza berri batzuen jabe izaten joango baita. Jan A. van Ek-ek aipatzen duen bezala, eskolaren testuinguruan hizkuntza arrotzaren irakaskuntza ez dago gertaera isolatu gisa kontsideratzerik, hizkuntza arrotza ez baita komunikaziorako bide bakarrik, pertsonareñ heziketa osorako tresna ere bada, ikasle eta gizabanako den aldetik, hots, hizkuntza bizia gai bat da berez, baina ikas-lanabesa ere bai aldi berean. Izan ere, hizkuntzak beste jakite batzuk norbereganzeko nahitaezko direnez, eta hizkuntz ihardunek ia ahalmen intelektual guztiak lanean jartzen dituztenez, ezin aproposagoak dira, eskola-gai diren aldetik, ahalmen horiek garatu eta hobetzeko.

Argitarapenak

Lehenengo bost mailetarako programazioak 1985-1986 ikasturterako eginik zeuden. Hala ere, behin behinekotzat hartu eta euskaltegi barruko ikasleei zuzendu genizkien. Emaitzak, bai Didaktika Batzordetik, bai irakasleen partetik eta baita ikasleentek ere, positiboki baloraturik, ordurarte egindakoa berregin, seigarren eta zazpigarren mailak programatu eta gure argitaletxea sortzeari eritzi genion komenigarri.

Berregin beharra

Gure eguneroko programazioetan zenbait ekintzak iraupen mugatua du. Hots, programazioetan ageri diren hainbat ekintza desfasatu egiten dira, bereziki, aipatutako pertsonaiak; egoerak, eguneroko bizitzarekin zerkusia izan dezaten sortuak baitaude. Beraz, ezinbestean, denbora pasatu ahala zaharkitu egiten dira.

Bestalde, eduki gramatikalei dagokienean, euskalduntze-mailaketa luzatzen joan da eta HABEk maila bakoitzerako ezarritako edukien banaketa ere bai.

Hortaz, lehenengo hiru mailetako programazioak berregin eta 1988-89 ikasturtean argitaletxea sortu genuen. Halaber, programazioak ez ezik,

mailei egokitutako irakur-liburuxkak ere egin ziren. Zeinetan ulermen-zein gramatika-ariketak agertzen diren.

Aurrerantzean, ikastaroz ikastaro, programazioen segimendua egiten ahalegintzen gara eta berregin beharra ikusi ahala birmoldatu eta berrargitaratu egiten ditugu, zeren hau baita, irakaslearen arteko koordinazioa lortzeaz gain, euskaltegi osoan dinamika berberarekin lan egin eta koherentzia didaktikoa aseguratzeko bidea.

Metodoaren erabilera

Egunez eguneko programa hau irakaslearentzako gida eta lagungarri da. Hona hemen laburbilduta beronen erabilpen egokirako zenbait ohar.

Oinarriak/abiaburuak

Ikastunitate bakoitzak helburu jakin batzuk dauzka; eta, halaber, aurreko ikastunitatearenak ditu oinarri eta abiaburu. Beraz, programa klasearen beharren arabera egokitzea irakaslearen esku geratzen bada ere, oso argi ibili beharko du beronek, programaren logika eta helburuak kontutan harturik egiteko; bestela, programa osoa hankaz gora ipin lezake.

Berrikusketak

Programa malguago, hau da, edozein talderi egokitzeko modukoa egiteko asmoz planteiatu ditugu berrikusketak. Izan ere, talderik azkarrengatik ere zenbait ikaspuntu zintzilik geratzen dira, zalantzak agertzen dira edota gauzak ahaztu egiten dira. Hutsune hauek betetzeko, hain zuzen, material osagarria ematen dugu.

Irakaslearen esku dago berrikusketak noiz eta zelakoak egingo dituen erabakitzea, taldeen arabera.

Talde-dinamika

Ikastunitate bakoitzeko ekintzak ikaslearen arreta erakartzeko eta mantentzeko egokien eritzi diogun ordenan programaturik daude, tentsio/distentsio-uneak tartekatuz. Hala ere, irakasleari dagokio ordena edota ekintzak berak aldatzea edo egokitzea, beti ere lehen puntuan esandakoa kontutan hartuz.

Taldearen dinamika eragingarri askoren menpean egonik, ezin auresan liteke zein izango den planteamendurik egokiena. Hau, klasearen dinamikaren arabera programa egokitzea, alegia, irakaslearen beraren betekizuna da. Hala ere, irakasleari laguntzeko edo, dinamika suspertzeko ekintza eta jokook, klasearen dinamika moteltzen hasten denean erabiltzekoak dira. Kontuz ibili behar da, dinamika larregi moteltzen utziz gero, ez baitago berau berpizterik. Beraz, neurritz gain moteldu orduko txertatu beharko dira jokook.

Funtzio-lanketa

Programan ageri bada ere, ez da sistematikoki gauzatzen. Gure premiazko helburua programak gauzatzea zen; eta ezin izan dugu nahiko genukeen bezain ondo burutu, zeuden hutsuneak betetzen hasteko beste denborarik ez geneukalako. Izan ere, funtzioen lanketa sistematikoari ekiteko, berauen azterketa sakona burutu behar baitzen aurren-aurrenik. Beraz, denborarik ezak mugatuta, ezin izan dugu hutsune hau patxadaz

bete. Honek, baina, ez du funtzio-lanketak programan lekurik ez daukanik esan nahi. Aitzitik, leku garrantzitsua dauka eduki ere, baina ez beti egokiena, ez eta behar bestekoa. Dena dela, hutsuneak hutsune, oro har, irakasleari lagungarri gertatuko zaiolakoan gaude.

Bakarkako lana

Igarri-igarria da programa honetan *bakarkako lanari* ematen zaion garrantzi larria. Izan ere, bakarka egiteko programatzen diren ariketa eta ekintzak programaren alde garrantzitsuak ez ezik funtsezkoak ere badira. Izan ere, ezinbestekoa da bakarkako lana, programak porrot egingo ez badu. Ikasleek bakarkako lana egiterik ez balute, programa beste era batera moldatu beharko litzateke, lan hori klase-orduetan egin dezaten. Programa, dagoen-dagoenean beteegi dago, eta ezinezkoa da ikasleek (banaka batzuk kenduz gero) bakarkako lanik egin barik dena bereganatu eta finkatzea.

Komenigarria litzateke ikasleak etxeko lanaren berebiziko garrantziaz jaberaztea; eta, honez gain eta bereziki, bakarkako lan hori zelan egin behar den (*ikasteknikak*) irakastea.

Kanpoko ekintzak

Badago beste hutsune larri bat, programak betetzen ez duena: kanpoko ekintzak, hain suertez. Ezinezkoa da, izan ere, kanpoko ekintzak programatzea, berauek klasearen, ingurugiroaren eta beste hainbat faktoreren menpean baitaude. Ezinbestekoak dira, bestalde. Berauek antolatzea eta programan txertatzea irakaslearen esku trebean utzi ditugu, beraz.

Ikastunitateen arteko lotura

Ikastunitate bakoitza osotasunean txertaturik dago, hau da, beraz, dago-kigun eguneko programaz gainera, hurrengo biruzpalau egunetakoa ere begiratzea, ikuspegi orokorra edukitzeko, hau da, eguneko ekintzen helburua zein den, eta hurrengo egunetan zer sartuko den jakin, apurka-apurka taldea prestatuz eta girotuz joateko.

Programa eta praktika

Programa hau, hein handi batean, praktika luze baten ondorioa bada ere, irakaslea bera da, praktikarekin kontrastatutakoan, azken *balorapena* egin behar duena, zerk balio duen eta zer baztertu behar den erabakiz.

Trebetasun-mailak

Programazioan ageri diren ikaspuntu guztiak ez dira garrantzi edo pisu berekoak izango; batzuk garrantzitsuagoak izango dira beste batzuk baino. Beraz, programazioan zehar trebetasun-maila desberdinak eskatuko dira, hala nola:

- Helburuak.
- Ulermen-mailakoak.
- Espresio moduan ikastekoak.

a. Helburuak. Urrats bakoitzeko programan ageri den guzti-guztia landu behar da; baina, logikoa denez, gauza batzuk garrantzitsuagoak dira; hortik lehentasunak markatu beharra. Beraz, urratseko edukiez aparte, helburuak ere zehaztuko ditugu. Helburutzat jotako hauek menperatzea ezinbesteko baldintza izango da urratsa gainditzeko.

b. Ulermen mailakoak. Urrats bakoitzeko edukien barruan ere maila desberdinak bereiziko ditugu. Edukirik gehienak lantzekoak izango dira, eta ahalik eta ondoen menperatzera eta finkatzera jo beharko dugu; baina agertuko dira beste batzuk, ulermen-mailan baino eskatuko ez direnak. Ikaspuntu horiek agertzen direnean, ikasleak ulertzeko gauza izan beharko du, hots, ez zaizkio erabiltze mailan eskatuko. Honek, baina, ez du esan nahi sail honen barruan ageri diren ikaspuntuak garrantzi gabekoak direnik, ez eta gutxiagorik ere. Programaren parte bat dira eta oso parte garrantzitsua.

c. Espresio moduan ikastekoak. Sail honetan sartu ditugun edukiak erabiltze mailan eskatuko dira. Ez da sortzeko gaitasuna eskatuko, espresio edo esaera moduan erabiltzea baizik. Posible da, esate baterako, "gustatzen zait; ahaztu egin zait..." eta antzeko zenbait espresio erabiltzeko gauza izatea, *nor-nori* orainaldian osorik jakin barik ere. Kasu honetan forma edo espresiorik erabilienak ikasiko ditugu, eta erabiltzen jakitea eskatuko. Era berean, "nori dagokio?", "niri dagokit"... erraz-erraz erabil ditzakete ikasleek eskema edo sistema zein den ere susmatu barik. Hauxe adierazi nahi dugu *espresio moduan* esaten dugunean.

Balorazio edo ondorio gisa

Berriketan metodoa urte askotako lanaren ondorioa izanik, gaur egungo euskalduntzea, ikaste- zein irakaste-lana, erraz dezakeelakoan sorturik dago. Besteak beste, egunez eguneko programazioak irakasleari lana errazteaz gain, ikasleak ikasprozesuan jarraipen serioa ikus dezan bide bat da.

Bestalde, euskalduntzean, taldean (4-16 ikasle) diharduen edozein irakasleak erabiltzeko modukoa da, beti eta planteamentuaren estrategia aldeztetik ulertzen bada. Hots, euskaltegietan zein A edo B ereduko bai institutu bai Lanbide Heziketako taldeetan, taldeak hogeitik edo beharagoak direnean; gehiago izanik, kontrolaezina izango bailitzateke irakaslearentzat.

Hutsuneak hutsune, orainarte euskalduntze-munduan ibili garenok ez dugu izan mailaz maila eta egunez eguneko programaziorik. Beraz, gure lanak, bai bere osotasunean erabiltzeko edo bai ez egoki eritzitakoa kritikatu eta ordezkoa sortzeko, gustariko askori ziurtasun handia emateaz gain, laguntza izugarria eman diola badakigu. Hortaz, aurrerantzean, ahal dugun neurrian, egina duguna hobetu eta falta dena programatzen jarraituko dugu; erabiltzen diharduten guztien kritikak eta aportazioak lagungarri izango ditugularik.